


Goiargi

Energia Komunitatea

Abaurregaina

Kokapena



Abaurregaina, Nafarroa

Biztanle kopurua: 128 (2021)

Sustatzailea: Abaurregainako Udala

Energia mota: Eguzki energia

TESTUINGURUA

Zerk eta zergatik sustatu da energia lanketa?

Abaurregaina Zangozako merindadean kokatzen den herri txiki bat da, Auñamendi eskualdean, Aezkoa bailaran, hain zuzen ere. Euskal Herriko herririk altuena da, Pirinioetako balkoia izenez ezagutzen da.

Garai batean, bailarako bi herrirekin batera, bizilagunak elektrizitatez hornitzen zituen linea elektrikoaren jabea zen. Baina, arrazoi ezberdinak medio, linea hau banatzaile handiago bati saldu zitzaion, eta, horrenbestez, ordura arte zuen burujabetza energetikoa galdu zuen herriak. Hori horrela, udalak, ekimen hau sustatuz, ahal den neurrian, subiranotasun hori berreskuratu nahi du, argi-indarraren "kontrola" bizilagunen esku uzteko helburuarekin.

Gauzak horrela, interes hori baliatuz, eta gaur egun ingurumenarekiko dagoen kezka eta bizi dugun energia-krisiaren harira, udalak energia-komunitate bat sortzea erabaki zuen, ingurumena gehiago errespetatzen duen kontsumo-eredu baterako trantsizio energetikoa errazteko. Proiektua aurrera eramateko Abaurregainako bizilagunei laguntza eskatu zien.

PROIEKTUAREN HELBURUAK

- Energia berriztagarrietatik datorren kontsumoa bultzatzea.
- Abaurregainako herritarren ahultasun energetikoari aurre egiteko ekimenak sustatzea.

- Ingurumenerako onurak eta onura sozioekonomikoak lortzea herriaren ingurunean.
- Energia-sektorean tokiko herritarrek ahalik eta parte-hartze demokratiko handiena izateko foroa izatea.
- Energia-eraginkortasunari eta energia berriztagarriei buruzko dibulgazioa eta sentsibilizazioa egitea.

PROZESUA

Zein izan da proiektuaren ibilbidea?

Lanketa garatzeko eman diren faseak

2021eko irailean, udalak informazio-bilera baterako deia egin zien bizilagunei proiektuaren berri emateko eta herritarrei laguntza eskatu zien, batetik, proiektua bultzatzeko eta, bestetik, talde eragilea osatzeko.

Talde eragilea osatu ondoren, (10 parte-hartzailerekin), gai juridikoen eta alderdi energetikoen inguruan prestakuntza eta ahalduntze prozesuari ekin zitzaion. Dinamika hori Artelan, Kisar eta Arankoak osatutako Ko-energiak gidatu eta gauzatu zuen. Formazio zikloak 7 saio iraun zituen, bakoitzak 3 orduko iraupenarekin gutxi gorabehera. Prozesua amaitu ostean, bilera ireki bat egin zen, egindako lan-keta herritarrei itzultzeko helburuarekin.



Bigarren fase batean, talde eragileak, modu autonomoagoan, komunitatearen forma juridikoa (kooperatiba) bezalako erabakiak hartzen eta estatutuen zirriborroa idazten eta lantzen jarraitu zuen. Prozesu hori komunitatea eratzeko bilerarekin amaitu zen. Saioan, interesa adierazi zuten bizilagunak gerturatu ziren, agiriak sinatu zituzten, kooperatibaren Kontseilu Errektorea aukeratu zuten, eta aurrera begira eman beharreko pausuak eman zituzten.

Gaur egun, bazkide guztien beharrezko dokumentazioa bildu ondoren, Nafarroako kooperatiben erregistroan izena emateko zain daude. Aldi berean, instalazio fotovoltaikoa martxan jarri aurretik, energia banatzen ari dira autokontsumo kolektiboan parte hartu nahi duten bazkideen artean.

ALDERDI EKONOMIKOA

- **Aurrekontua:** 118.322,74€
- **Finantziaketa (Udala-Gobernua):** Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentuak sustatutako Pirinio Planak proiektuaren % 70 ematen du: 77.320,42 €. Partaidetza-prozesuaren % 80, 6.292 €, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Berdintasun, Funtzio Publiko eta Barne Departamentuko herritarren partaidetzarako atalak lagundu zuen diruz.
- **Prozesuan parte hartu duten dinamizatzaileak:** Abaurregainako Udala, Ko-energiaren laguntza teknikoa, talde eragilea, bizilagunak eta beste energia-komunitate batzuk.

PRAKTIKAREN INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

Indarguneak

- Udalak bermatutako proiektuaren finantzaketa, hainbat proiektu aurkeztuz (instalazio fotovoltaikoa eta prozesu parte-hartzailea).
- Interesa duten auzotarrek ez dute hasierako inbertsiorik egin behar, kooperatiban parte hartzea erraztuz eta sustatuz.
- Parte-hartze irekia eta borondatezkoa.
- Gobernantza demokratikoa, bazkideek gauzatua.



Ahulguneak

- Segurtasun juridikorik eza, legegintzako zehaztapena falta baita.
- Antzeko proiektuen erreferenteen eskasia eta gabezia.
- Administrazio-prozesu korapilatsu eta garestia.

Eredu hau errepikatzeko jarraitu beharreko pausuak:

- Aholkularitza teknikoa, prestakuntza-prozesua gauzatzeko. Batetik, juridikoa Arankoarekin, eta bestetik, ingeniari-teknikoa, KISSarrekin.
- Estatutuak egiten lagundu diete, eta energia banatzeaz arduratzen ari dira.
- Bazkideak inskribatzeko, bakoitzaren dokumentazioa, datuak tratatzeko baimena eta energia-hornidurei buruzko datuak behar izan dituzte.